En relación con el sorteo de los lotes de leña pregunta sobre el mismo, el alcalde Sr. Irigaray informa que se terminó de marcar ayer y cuando manden los estadillos la semana que viene se hará, ya que debido al tiempo no se ha podido hacer antes.

Por último y con respecto a la Cámara Agraria, ocurre lo mismo que con el servicio de correos, se están reduciendo costes y por ejemplo el cartero reparte de Ochagavía a Burguete y por tanto hasta el mediodía no llega.

Se acuerda mantener una reunión con ellos para ver si se puede organizar de otra manera.

Y no habiendo más asuntos que tratar siendo las 21,00 horas del mismo día se levantó la sesión de lo que doy fe.

Aurizko Udaletxean, 2013ko uztailaren 4ko 20:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratu ziren zinegotziak: M^a Roncesvalles Azanza Burusco, M^a Aranzazu Oyarbide Lapazarán, Juan Manuel Azanza Burusco, Alejandro Otegi Echeverría eta Luis De Potestad Tellechea, alkatea, Jose Irigaray Gil, bilkuraburu izan zen, eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

1.-1.- 2013ko MAIATZAREN 9ko BILKURAKO AKTAREN ONESPENA

Udalbatzak erabaki du aho batez 2013ko maiatzaren 9an egindako osoko bilkuraren akta onartzea.

2.- 2013ko MAIATZAREN 3tik EKAINAREN 26ra ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEI BURUZKO INFORMAZIOA

Alkateak, 2013ko maiatzaren 3tik ekainaren 26a arte eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du; horiek guztiak bilkurako espedientean daude eta udalkideak jakinaren gainean gelditu dira.

3.- 2012ko KONTUEN BEHIN BETIKO ONESPENA

Alkateak jakinarazi du udal kontuak jendaurrean egon diren bitartean ez dela alegaziorik aurkeztu eta horiek behin betiko onartzea proposatu du.

Udalbatzak erabaki du aho batez 2012ko udal kontuak onartzea; hona hemen:

AURREKONTUEN EMAITZEN EGOERA

Aitortutako eskubide garbiak 518.207,31

Aitortutako betebeharrak 453.409,24

AURREKONTUAREN EMAITZA 64.798,07

Ezarpenak

Finantzazio positiboaren desbiazioa 2.925,61

Finantzazio negatiboaren desbiazioa 0,00

Diruzaintzako soberakinarekin
finantzatutako gastuak 0,00

Merkataritza operazioen emaitza 0,00

AURREKONTUAREN EMAITZA 61.872,46
EGOKITUA

DIRUZAINZAKO SOBERAKINAREN EGOERA

KOB RATZEKE DAUDEN 122.711,50
ESKUBIDEAK

+ Diru-sarreraren aurrek.: 60.950,07

+ Diru-sarreraren aurrek.: Itxitako urtealdia	22.079,49
+Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	60.609,83
- kobratzeko zailak diren eskubideak	20.927,89
+ ORDAINTZEKE DAUDEN BETEBEHARRAK	71.979,38
+ Gastuen aurrek.: Indarrean dagoen urtealdia	25.219,37
+ Gastuen aurrek.: Itxitako urtealdia	121,92
+aurrekontuz kanpoko gastuak	46.638,09
+ DIRUZAINZAKO FONDO LIKIDOAK	287.333,83
+PILATUTAKO FINANTZAKETA NEGATIBOEN DESBIDERAKETA	0,00
= DIRUZAINZAKO SOBERAKIN GUZTIA	388.065,95
Ukitutako finantzazioa duten gastuengatiko Diruzaintzako Soberakina	0,00
Ukitutako baliabideengatiko diruzaintzako soberakina	2.925,61
Gastuetarako diruzaintzako soberakina	335.140,34

DIRUZAINZAKO LABURPEN OROKORRA

Kobrantzak		ORDAINKETAK
AURREKONTU ARRUNTAK	457.257,24	AURREKONTU ARRUNTAK
AURREKONTU HERTSIAK	44.181,18	AURREKONTU HERTSIAK
+Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	471.552,69	+aurrekontuz kanpoko gastuak
KOBRUAK GUZTIRA	972.991,11	ORDAINKETAK GUZTIRA
HASIERAKO IZAKINAK	316.260,08	BUKAERAKO IZAKINAK
GUZTIRA	1.289.251,19	GUZTIRA

4.- LINDUSKO ETXOLA ERABILTZEKO INGURUMENENKO DEPARTAMENTUAREKIN HITZARMENA SINATZEA

Irigaray jk. hitza hartu du eta esan du LINDUS proiektuak udalerraren garapenean eragina izan duela eta interesatuta dagoela Atlantikoko bidetako migrazioa ikertzeko gune egonkorra jartzeko Lindusen (Auritz/Burguete), hortaz, proposatu du Nafarroako Gobernuari Lindusko lepoan dagoen etxola erabiltzen uztea. Nafarroako Gobernuak, Udalak hala eskatuta, hitzarmen ereduak igorri du, bi aldeek sinatzeko, hona hemen:

BILDURIK

Alde batetik Jose Irigaray Gil, Aurizko alkatea, Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz.

Eta bestetik, Jose Javier Esparza Abaurrea, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Tokiko Administrazioeko Departamentuko Kontseilaria, Gobernua ordezkatzuz.

AZALTZEN DUTE

Lehenengo.- POCTEFA 121/09 Lindus Proiektuaren bidez Lindusko (Auritz/Burguete) behaketa gunean atlantikoan barna hegaztien migrazioa ikertzeko hiru urtetan zehar lortutako emaitzek konstarazten dute pasabide hori

garrantzizkoa dela nazioarte mailan eta ezinbestekoa dela Lindusen (Auritz/Burguete) migrazioa ikertzeko behaketa-gune egonkor bat jartzea.

Bigarren.- Aurizko Udalak uste du LINDUS Proiektuak udalerriaren garapenean lagundu duela eta interesaturik dago Lindusen atlantikoko bidean barna gertatzen den migrazioa ikertzeko gune egonkorra jartzeko. Hortaz, Lindusko Lepoan duen etxola erailtzen uzteko prest dago.

Hirugarren.- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Tokiko Administrazioiko Departamentuko Habitaten Atala interesaturik dago Nafarroan barna ematen den hegaztien migrazioa ezagutzeko, batez ere Lindusen dagoen behaketa gunetik egin ahalden azterketa; hori dela eta, laguntza ekonomikoa eman dio 121/09 POCTEFA Lindus Proiektuari. Hortaz, migrazioaren ikerketa zientifikoarekin jarraitzearen alde dago, hegazti basatiak gordetzeko 2009/147/CE Zuzentarauaren 13. baldintzan aipatzen den moduan, eta hori lortzeko Lindusen behaketa eta ikerketa egiteko gune egonkorra jartzeko prest dago.

Laugarren.- Nafarroako Toki Administrazioari buruko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 63. artikulua honakoa dio: "Foru Komunitatearen Administrazioaren eta entitate lokalen artean lankidetzak hitzarmenak egiten ahal dira guztien onerako zerbitzuak egiteko eta obrak burutzeko".

Bosgarren.- Eraentza juridiko horri jarraiki eta lanak behar bezala garatzeko, beharrezkoa da hemen dauden bi entitateen arteko lankidetzak eta, hori lortzeko, honako Lankidetzak Hitzarmena sinatuko da honako klausulak ezarriz:

KLAUSULAK

1.- HELBURUA

Lan Hitzarmen honen helburua da Aurizko dermioan dagoen Lindusko lepoko etxola erabiltzeko eta kudeatzeko oinarri juridiko-administratiboak ezartzea.

2.- ERABILTZEKO ETA KUDEATZEKO BALDINTZAK

Udalak konpromezua hartu du Lindusko lepokoan duen aterpea erabili eta kudeatzen uzteko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari, migrazioaren jaraipena edo ikerketarekin edo faunaren bestelako aferekin zerikusia duten lanetan arituko diren langileak aterpean egoteko dituzten baldintzak hobetzeko.

Biodibertsitatearen kontserbazioaren bestelako ezaugarriak ikertzeko ere erabili ahal da, beti ere Aurizko Udalak onespena eman badu.

3.- MANTENTZEKO ETA HOBETZEKO LANAK

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak bere gain hartuko ditu aterpea mantentzeko eta hobetzeko beharrezkoak diren kostuak eta materialen gastuak, enpresa baten bidez edo Luzaideko Udalarari ordainduz, aldez aurretik justifikatuta, aterpea erabili bitartean eta jarduerak iraun bitartean.

4.- EPEAK

Udalak konpromezua hartu du Lindusko lepoan duen aterpea erabili eta kudeatzen utziko diola Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari 20 urterako.

5.- IZAERA ETA JURISDIKZIOA

Hitzarmen honek administrazio izaera dauka; klausuletan ezarritakoaren arabera arautuko da eta horietan aurreikusi ez denari dagokionez Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoaren eta Prozedura Administratiboaren azaroaren 26ko 30/1992 Legeak eta gaiarekin zerikusia duten gainontzeko xedapenek diotenari jarraituko zaio. Hitzarmenaren klausulak interpretatzean sortu ahal den edozein desadostasun Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak ebatziko du hasiera batean, eta haren erabakia administrazioarekiko auzitegian errekurritu ahalko da, beti ere alde zuzenetik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen ekainaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikulua erreferentzia egon bada.

Udalbatzak erabaki du aho batez hitzarmena aipatu den bezala onartzea.

5.- KALITATEZKO OSASUN ASISTENTZIA BERMATZEKO NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO LANDA EREMUETAKO BIZTANLEEN OSASUN ESKUBIDEAK ETA ZERBITZUAK ARAUTZEN DITUEN FORU LEGE PROPOSAMENARI BURUZ ERABAKIA HARTZEKO PROPOSAMENA

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du Pirinioko Osasun Batzarrak Foru Lege proposamena egin duela, kalitatezko osasun asistentzia bermatzeko Nafarroako Foru Komunitateko landa eremuetako biztanleen osasun eskubideak eta zerbitzuak arautzeko. Gaineratu du ez dela landa eremuei tratu berezia ematea helburua, baizik eta nafar guztiek, osasun arloan, eskubide berberak edukitzea, eta ez baloratzea osasuna irizpide ekonomikoaren arabera. Hortaz gaia arautu nahi da udal lege ekimenaren bidez, eta horrek Zangozako menrindadeko udalen %30ek atxikimendua adieraztea eskatzen duela, beti ere merdindadeko biztanleen erdia osatzen badute. Hortaz, lege ekimen hori onartzea eta hau erabakitzea proposatu du:

1.- Aurizko Udalak kalitatezko osasun asistentzia bermatzeko Nafarroako Foru Komunitateko landa eremuetako biztanleen osasun eskubideak eta zerbitzuak arautzeko Udalek sustatu duten Lege proposamena sustatzea.

2.- Udal honek Erronkariko zinegotzia den Amparo Viñuales Gale izendatu du bere ordezkari gisa.

3.- Idazkaritzari eskatzea ziurtagiri bat egin dezala honakoak egiaztatzen: lege ekimenarekin bat egiten duen udalaren akordioa, ordezkariaren izendapena eta foru lege proposamenaren testu osoa eta hori guztia posta seguruaren bidez igortzea Pirinioko Osasun Batzarrari (eta haren izenean Amparo Viñuales Galeri, Erronkariko Udalaren zinegotzia).

4.- Erabaki honen berri Pirinioko Osasun Batzarrari jakinaraztea.

Aurizko Udalak sustatu nahi duen kalitatezko osasun asistentzia bermatzeko Nafarroako Foru Komunitateko landa eremuetako biztanleen osasun eskubideak eta zerbitzuak arautzeko Udalek sustatu duten Lege proposamenaren testua hau da:

KALITATEZKO OSASUN ASISTENTZIA BERMATZEKO NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO LANDA EREMUETAKO BIZTANLEEN OSASUN ESKUBIDEAK ETA ZERBITZUAK ARAUTZEN DITUEN FORU LEGE PROPOSAMENA

TEXTO ARTICULADO

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Esta Ley Foral pretende regular y promover los derechos de la población de las zonas rurales de la Comunidad Foral de Navarra, así como la cobertura de las prestaciones sanitarias exigibles para el conjunto de la ciudadanía de Navarra. Y desarrolla los mismos en lo que se refiere a atención sanitaria primaria y continuada, atención de urgencias y atención especializada, teniendo en cuenta que las zonas rurales no pueden contar con los mismos servicios a los que tienen acceso las zonas urbanas, pero sí con todos los servicios adaptados a sus circunstancias. Se trata de complementar las medidas previstas en la Ley Foral 17/2010, de 8 de noviembre, de derechos y deberes de las personas en materia de salud en la Comunidad Foral de Navarra, y garantizar el principio de equidad en el acceso al conjunto de los servicios y profesionales sanitarios disponibles y en la asistencia sanitaria y los cuidados a su estado de salud.

CAPÍTULO PRIMERO

Disposiciones generales

Artículo 1.

La presente Ley Foral tiene por objeto:

3. Regular y promover la cobertura de las prestaciones sanitarias exigibles para el conjunto de la ciudadanía de Navarra en las zonas rurales de la Comunidad Foral de Navarra, extensible a inmigrantes que residan en zonas rurales, con independencia de su situación administrativa.
4. Regular y promover el cumplimiento de los derechos de la población de las zonas rurales de la Comunidad Foral de Navarra para una asistencia sanitaria de calidad.

Artículo 2.

4. El ámbito de aplicación de esta Ley Foral incluye a las personas empadronadas o residentes en las zonas rurales de la Comunidad Foral de Navarra.
5. El ámbito de aplicación de esta Ley Foral incluye a las personas que se alojen ocasionalmente, transiten o circulen por las zonas rurales de la Comunidad Foral de Navarra.
6. En esta Ley Foral se entiende por zonas rurales todas las zonas básicas de salud, a excepción de Pamplona y comarca.

CAPÍTULO SEGUNDO

Prestaciones y derechos de la población de las zonas rurales en atención sanitaria de urgencias

Artículo 3.

El objetivo de este capítulo es definir el nivel de calidad, los tiempos de respuesta, y el apoyo especializado en la asistencia a las urgencias sanitarias, que garanticen una atención acorde con los estándares científicos aceptados.

Artículo 4.

4. En aras a garantizar la asistencia “in situ” lo más efectiva posible, se establecerán las guardias de presencia física en el centro de salud y/o consultorio como norma general en las zonas rurales de Navarra, en base al criterio de riesgos y de cobertura de atención, no en base a parámetros de población estable o utilización y priorizando por tanto, las zonas más alejadas de los hospitales de referencia.
5. En caso de urgencias graves y emergencias se garantizará de manera efectiva la activación inmediata de los recursos necesarios y la llegada del personal sanitario con el equipamiento necesario en un tiempo máximo de 20 minutos.
6. En caso de urgencias graves y emergencias, se asegurará en todo caso, la movilización de los recursos que garanticen la llegada del paciente al hospital de referencia, en el periodo máximo de 1 hora.

Artículo 5.

4. Se garantizará a los profesionales sanitarios la disponibilidad de vehículos específicos para la realización de las guardias, sean de presencia física o localizadas, indispensable en zonas de climatología adversa, lugares de tránsito difícil por el firme de los caminos, zonas de montaña, etc. Estos vehículos contarán, además, con el material adecuado para emergencias, piloto y sirena.
5. En cualquier caso, incluso en las zonas en las que por sus características no requieran, en principio, de estos vehículos específicos, será efectiva la posibilidad de utilizar recursos conjuntos como las ambulancias de bomberos o ambulancias concertadas, especialmente

en accidentes.

6. Se garantizará el mantenimiento de los servicios de ambulancias de los que se disponen en las zonas rurales de Navarra.

Artículo 6

En coordinación con SOS Navarra, se garantizará el apoyo y la movilización preferente de los recursos y servicios especializados de emergencias como ambulancias medicalizadas y helicóptero medicalizados en apoyo a los equipos sanitarios de las zonas más alejadas o de difícil accesibilidad.

Artículo 7

Se garantizará la formación continuada y permanente a todo el personal que tenga que realizar atención urgente, con carácter preferente para el personal rural alejado de los centros hospitalarios.

Artículo 8

Se garantizará la cobertura de aparatos de telefonía móvil o buscas en todas las zonas rurales.

CAPÍTULO TERCERO

Prestaciones y derechos de la población de las zonas rurales en atención sanitaria primaria y continuada

Artículo 9

El objetivo de este capítulo es mejorar las condiciones laborales para facilitar la estabilidad y la capacitación de los profesionales sanitarios rurales, y por añadido la calidad de la atención primaria y continuada que prestan.

Artículo 10

Se garantizará que los profesionales sanitarios que desempeñen su función en las zonas rurales cumplan el perfil estipulado en las plazas que ocupen, tanto en los criterios de especialidad como en los lingüísticos.

Artículo 11

Se garantizará la cobertura de ausencias en base a mantener una atención de calidad, más allá de los datos poblacionales. Para ello, se consensuará el porcentaje entre la administración sanitaria y los Consejos de Salud de las zonas, garantizando al menos el 70% de cobertura.

Artículo 12

Se proveerán sistemas para la cobertura de ausencias del personal sanitario en los puestos de trabajo de difícil provisión.

Artículo 13

Se garantizará la dotación en todos los centros de salud de las zonas rurales de los equipamientos precisos y las primeras dosis de tratamiento en la atención urgente vital y no vital.

Artículo 14

Se garantizará la formación continuada y permanente a todo el personal, con carácter preferente para el personal rural alejado de los centros hospitalarios.

Artículo 15

Se garantizará la atención continuada a los pacientes que la precisen, mediante la oportuna coordinación entre los profesionales de atención primaria y los profesionales de urgencias de la zona básica de salud.

CAPÍTULO CUARTO

Prestaciones y derechos de la población de las zonas rurales en atención sanitaria especializada

Artículo 16

El objetivo de este capítulo es garantizar y facilitar la accesibilidad de los ciudadanos de las zonas rurales, a los servicios especializados del SNS-O.

Artículo 17

En todos los planes funcionales y protocolos de asistencia sanitaria que se diseñen, especialmente en los que hagan referencia a los pacientes crónicos y/o con pluripatologías, se considerará de forma preferente, a los ciudadanos de las zonas rurales, desarrollándose soluciones específicas que faciliten el acceso a las prestaciones.

Artículo 18

3. En aras a la eficiencia, se fomentará el procedimiento de las interconsultas no presenciales de los habitantes de las zonas rurales de Navarra cuando sea posible, al objeto de evitar desplazamientos innecesarios.
4. Se garantizará el establecimiento de circuitos especiales de citación en aquellas zonas rurales situadas a más de 20 kilómetros de distancia de los servicios de atención especializada.

Artículo 19

Se garantizará a la población de las zonas rurales el acceso al transporte público creando redes de transporte por zonas al objeto de acercar a la población de las zonas rurales a la atención especializada.

Disposición derogatoria

Quedan derogadas todas las disposiciones de igual o inferior rango que se opongan a lo que se establece en esta Ley Foral.

Disposiciones finales

1. El Gobierno de Navarra dictará las disposiciones reglamentarias necesarias para el desarrollo y la ejecución de lo previsto en esta Ley Foral.

2. La presente Ley Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Navarra.

Se acuerda por unanimidad aprobar la moción en los términos formulados por el alcalde Sr. Irigaray

6.- PIRINIOAN HEZKUNTZAREN BALDINTZA DUINAK LORTZEKO MOZIOA

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Pirinioan hezkuntzaren kalitatea hobetzeko eskualde mailako ikastetxeetako erreferentziako udalek eskatu dutela mozio bat onartzea eskola horiei tratu berezia eman diezaieten, haietan ikasten duten ikasleen egoera berezia baita, eta hortaz, mozio hau onartzea proposatu du:

1. Prozedura bereziak ezartzea Pirinioko Udalei Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta DBHko zerbitzu publikoa mantentzeak dakarkien defizitari aurre egin ahal izateko. Kontuan hartuz gastu horiek gure herrietako familiek hezkuntza zerbitzu publikoa izateko eskubideak sortzen dizkiela, proposatu dugu hitzarmena sinatzea Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuarekin, Departamentu horrek ikastetxe bakoitzeko jabea den Udalari sortutako defizitaren %80 ordain dezan. Defizit hori kalkulatzeko Udal bakoitzak aurkeztuko du, urte bukaeran, gastuen eta diru-sarreraren kontua.

2. Otsailaren 11ko 12/1990 Foru Agindua aldatzea, eta Iruñea eta Iruñerrian sartzea derrigorrezkoak diren ikasketen ondoko ikasketak eremu horretako ikastetxeetan egitera beharturik dauden ikasleak, nahiz eta bere bizilekua Iruñean edo Iruñerrian ez izan, ikastetxeek ikasleak onartzeko jarraitu behar duten baremoan ez gertatzeko orain Iruñean edo Iruñerrian bizi ez diren ikasleek pairatzen duten diskriminazioa.

3. Derrigorrezko heziketa ondoko heziketak gure ibarretako familiei sortzen dien arazoa konpontzeko irtenbideak bilatzea, diru-laguntzak ezarriz garraio gastuei aurre egiteko (bideragarria den kasuetan garraio zerbitzua jarritz), egoitzako gastuetarako (Iruñean dagoen ikasle-egoitza publiko bakarra Fuerte Principe da eta Nafarroako Kirol Institutuaren menpe dago, ikasturteko kostua 5.000 € baino gehiagokoa da) edo pisuak modu partekatuan alokatzeko (familia batzuk aukera hori besterik ez dute, merkeago baita baina ikasleen kontrola galtzeko arriskua dauka).

Udalbatzak erabaki du aho batez Irigaray jk., alkateak, aurkeztu duen mozioa onartzea.

7.- AUZOLANA ARAUTZEKO ORDENANTZAREN HASIERAKO ONESPENA

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du egungo krisi ekonomikoak eta gizarte mailan bizi dugun egoerak kontuan hartuz, auzolana ez dela karga edo lan moduan ikusi behar, baizik eta komunitatearen zerbitzurako egin behar den lan gisa. Arauturik ez dagoenez borondatezkoa da, eta, hortaz, proposatu du auzolana arautzeko ordenantza onartzea. Hemen aurkeztu duen eredia prestatzeko beste herri batzuetan indarrean daudenak hartu ditu kontuan, adibidez Igantzi edo Lanzkoa. Modu berean proposatu du aprobetxamendu batzuk, egur loteenak besteak beste, auzolanetan parte hartzearekin lotzea.

De Potestad jk. hitza hartu du eta esan du ordenantza onartzearekin ados dagoela, baina hura aztertu ondoren uste duela 3. artikulua aldatu behar dela, ez baitu bazkalekuen gaia biltzen, eta kontuan hartu gure herriko sektore nagusietako bat abeltzainena dela traktore-ordu bat eta jornal ordu bat gehiago sartu ahal direla, eta 8. artikuluari dagokionez, aldatuko lukeela, Nafarroako Toki Ogasunen Foru Legearen 54. artikulua adinari buruz dioenari egokituz.

Alkateak, Irigaray jk., ados dagoela dio eta proposatu du hasiera batean onartzea, alegazioak aurkezteko epean aldaketak proposatu ahal direla kontuan hartuz eta behin betiko onartu aurretik De Potestad jk. egin dituen oharpenak kontuan hartzea.

Udalbatzak erabaki du aho batez auzolana arautzeko ordenantza hasiera batean onartzea eta hura argitaratu eta bideratzea, Toki Administrazioaren 6/1990 Foru Legeak dioenari jarraituz.

8.- CARLOS LEACHEK BERROAUNDIKO LURZATIA UTZITAKO EPEA LUZATZEKO EGIN DUEN ESKAERA

Irigaray jk. hitza hartu du eta jakinarazi du Carlos Leachek eskatu duela Berroaundian utzi zitzaion lurzattia erabiltzeko epea luzatzea, eguraldi txarra dela eta ez duelako hura garbitu eta lantzek aukerarik izan eta eskatu duela 2014tik aitzina kontaktzen hastea.

Aho batez erabaki da Leache jk. egin duen eskaera onartzea eta eman zaion epea luzatzea, 2014tik aitzina kontaktzen hasiz.

9.- MANUEL ETULAIN URRUTIAK JARRITAKO BERRAZTERTZEKO HELEGITE BEREZIA

Alkateak, Irigaray jk. hitza hartu du eta Manuel Etulain Urrutiak jarri duen berraztertze helegite bereziari buruzko informazioa eman du; helegite hori Udalak 2013ko otsailaren 7ko osoko bilkuran hartutako erabaki baten aurka jarri du, ez baizitzaion onartu 6 poligonoko 273 lurzatiaren jabetzari buruz egindako erreklamazioa.

Etulain jk. helegitea honako alegazioetan oinarritu du:

2012ko azaroa arte ez zela ezagutzen Luzaideko Udalak 1884ko apirilean sinatutako dokumentua; horretan, errekurtsogilearen arabera, baratzaren jabetza frogatzen da, eta ezin zen ez 1990an, ezta 1993an, erantzunik eman edo hori aurkeztu, data horietan Udalak herriko baratzaren inbentarioa egiteko prozedurari hasiera eman bazion ere.

138 urte horietan zehar ez dela baratz hori saldu, uzti edo aldatu, beti Loigorriko jabeen eskutan izan baita.

Dokumentu berria agertu denez eta Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoaren Legean zein Prozedura Administratibo Komunean oinarriturik, berraztertze errekurtso bereziaren bidez Loigorriren baratzaren titulartasuna errekurritu egin duela.

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du berriro ere, eta esan du 2013ko otsailaren 7an hartutako erabakian oinarritutako dokumentazioa berriro aztertu ondoren eta idazkaritzaren informea ikusita, jakinarazi nahi duela Etulain jk. 6 poligonoko 273 lurzatia erabili duela eta duela 30 urte baino gehiagotik dagokion kanona ordaindu duela eta horrek berresten duela bizilagun den neurrian baratza erabiltzeko duen eskubidea, eta Loigorrirenako jabe denetik erakutsi duen jarrerak egoera hori berresten duela. Udalak aukera eman diela bizilagunei bere jabetzako ondasunak erreklamatu eta justifikatzeko, eta kasu honetan errekurtsogilearen jabetza zalantzan jartzeaz gain, berak egindakoarekin Udalaren titulartasuna baieztatu du. Beraz, Udalak Jabetza Erregistroan erregistratu du. Azkenik, Etulain jk. Udalak egin duen inmatrikulazioa zalantzan jartzeko nahikoak ez diren dokumentuak aurkeztu ditu.

Hortaz, jarritako berraztertze errekurtso berezia atzera botatzea proposatu du.

De Potestad jk. hitza hartu du eta aurreko bilkuran eman zuen iritzi bera eman du.

Ondoren, bozketa egin da eta aldeko bost botoz (Azanza, Oyarbide, Azanza, Otegi eta Irigaray) eta aurkako batez (De Potestad) erabaki da Manuel Etulain Urrutia jk. jarri duen berraztertze errekurtso berezia ez onartzea.

10.- AURIZKO IKASTETXE PUBLIKOAK KULTUR ETXEA ERABILTZEKO EGIN DUEN ESKAERA

Irigaray jk. hitza hartu du eta jakinarazi du Guraso elkarteak eskatu diola Udalari Kultur Etxean leku bat erabili ahal izatea 2013-2014 ikasturtean zehar Ludoteka zerbitzua antolatzeke; zerbitzu hori gurasoek kudeatuko luketela eta astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan 17:00etatik 19:00etara emango litzateke; Garraldan eskolatuak dauden haurrek ere parte hartuko luketela, beti ere horien gurasoek kudeaketan parte hartzeko prest baldin badaude; hortaz gain aurreko egunetan eskola-jantokian bazkalduko duten haurrek 13:30etaik 15:00etara erabili ahal izatea, eta ordutegi horretan jantokiaren arduradunak ardura hartuko lukeela.

Aho batez erabaki da Guraso Elkarteari kultur etxea erabiltzeko baimena ematea eskatutako xedeetarako eta aipatutako ordutegietan.

11.- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEAK ZALDUPEAN HONDEATZE-LANAK EGITEKO ESKAERA

Ondoren alkateak, Irigaray jk, Aranzadi Zientzia Elkarteak egin duen eskaera jakinarazi du, horretan baimena eskatzen dute hondeatze-lan arkeologikoak

egin nahi dituztela 2 poligonoko 13 lurzatian (Arrobiko Bordak) eta 5 poligonoko 288 lurzatian (Zaldupea-Zaldua), biak udalarenak.

Zehaztu du joan den urtean hondeatze-lan batzuk egin zituztela eta Iturissa agertu zela eta aurten jakin nahi dutela zer nolako hedadura zeukan. Alkateak proposatu du baimena ematea, Udala elkarte horren bazkide delako, beti ere Nafarroako Gobernuko arkeologia zerbitzuak baimena ematen badu eta hark ezarritako baldintzetan.

Aho batez erabaki da Aranzadi Zientzia Elkarteari baimena ematea hondeatze-lanak egiteko Nafarroako Gobernuko Arkeologia Zerbitzuak ezarritakoari jarraituz.

12.- UDAL LANGILEAK FUNTZIONARIO BIHURTZEKO PROPOSAMENA

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta jakinarazi du Nafarroako Administrazio Publikoetako langileak funtzionario bihurtzeko prozesuari hasiera eman zaiola eta toki entitateek ere aukera dutela finkoak diren langileak funtzionario bihurtzeko.

Modu berean jakinarazi du, Udaleko langileei aukera hori eskaini behar zaiela uste baldin badu ere, maiatzaren 29ko 19/2013 Foru Legearen 4. artikuluan aipatzen den baldintzetako bat dela funtzionario bihurtzea ezin dutela aldizkako lanpostuak edo lanaldi partzialekoak betetzen dituzten lan-kontratudun finkoek eskatu. Udalaren kasuan, bi langile finko daude, baina lanaldi partziala dutenez, nahiz eta prozedurari hasiera eman nahi, baldintza hori betetzen ez dutenez, ez dute funtzionario bihurtzeko aukerarik.

Bai Toki Administrazioiko Departamentutik zein Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federaziotik eta lan-aholkularitzatik esan dute funtzionario bihurtzeko prozesuari hasiera eman ahal izateko langile horiek lan egiten duten Udalen arteko zerbitzuen batasuna egin beharko litzatekeela, eta Udala horretan ari da, baina tokiko mapa berria onartu arte edo indarrean dagoen Legea aldatu arte ezingo dela horrelakorik egin.

Udalbatzak dio ados dagoela Irigaray jk., alkateak, esandakoarekin, eta aho batez erabaki du lanean jarraitzea Udalaren langile finkoek funtzionario bihurtu ahal izateko.

BALDINTZA PLEGUEN ONESPENA

Gai zerrendatik kanpo eta urgentziazko prozeduraz, alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Hekuntza Departamentuak 50.000 euroko dirulaguntza eman diola udalari eskolako teilatua konpontzeko eta lanak 2013ko uztailaren 30a baino lehen hasi behar direla. Modu berean Toki Administrazioiko Departamentuak jakinarazi du, Udala prest baldin badago plazako zolatze lanak 2013an egiteko, dirulaguntza onartuko luketela. Beraz, baldintza pleguak lehen baino lehen onartu behar dira. Udalbatzak erabaki du aho batez eskolako teilatua konpontzeko lanak publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzea eta plazako zolatze lanak prozedura irekiaren bidez, Nafarroako Gobernuako kontratazio atarian argitaratuz; pleguak aho batez onetsi dira Kontratu Publikoen 6/2006 Foru Legearen arabera.

13.- BESTERIK

Kirol Mankomunitatea

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du kirol jardueren dirua banatuko dela eta Aurizko Udalari 8000 euro inguru dagokiola eta horiek instalazioak hobetzeko erabiliko direla.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Hostalariekin izandako bilera

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du duela gutxi bilera egin zuela herriko hostalariekin eta zerbitzuen sektorea dinamizatzeko elkarte sortu dutela. Modu berean eta haiek eskatuta, bilera egin zuela Orreagako Kolegiatako ordezkariekin eta Elkarte horrekin, turismoaren inguruko gaietaz mintzatzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Erro-Orreaga Fundazioa

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Patronatuko kidea den heinean, Sustapen kontseilariari eskatu diola bilera dei dezala Fundazioaren etorkizuna eztabaidatu eta sortu zeneko kapitalaren zati bat udalek erabili ahal izateko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Nekazal Ganbara

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du maiatzaren bukaeran jakin zuela nekazal ganbara itxiko zutela uztailaren 1etik aitzina, eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari eskutitza igorri ziola esanez gure herrian eskualdeko zerbitzu batzuk daudela eta bulegoa mantendu nahi dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Ekainaren 13ko 198/2013 Foru Agindua

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du agindu horretan herri hau sartua dagoela eta lehenengo hiruhilekoan izandako elur ekaitzek ukitutako pertsona fisiko eta juridikoek izan ditzaketan zerga salbuespenak ezarri zirela, eta hori bizilagunei jakinarazi diela bando baten bidez.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Turismo zuzendari orokorrarekin izandako bilera

Irigaray jk. jakinarazi du bilera izan zuela Turismo zuzendari orokorrarekin, Carlos Herce, eta eskatu diola kontuan hartzea Lindus proiektua, aurkeztu den leader eta atera ahal den Interreg hegazti migrariak aztertzeke, finantziazioa lortu ahal izateko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Ondarearen zuzendari orokorrarekin izandako bilera

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du bilera eskatu duela Ondarearen zuzendari orokorrarekin, Jesus Ascunce, Arantzadi Zientzia Elkartearekin batera, joan den urtean Zalduan aurkitutako Iturissa aztarnen eta kultur etxean ospatuko den erromatar galtzaden inguruko kongresuaren gaineko informazioa emateko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

San Juan bestak

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du bestetan parte hartzen handia eta giro ona nagusitu direla, nahiz eta tenperaturak oso bajuak izan. Eta bizilagunei parte

hartzea eskertu nahi die, batez ere antolaketa lanetan aritu diren maiordomoei eta gazteei.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Langabetuen kontratazioa

Alkateak, Irigaray jk., dio hautapen prozesuaren ondotik Carlos Salon Pedroarena, Mikel Etxenike Erneta eta Xanti Mayans Irigaray kontratatu dituztela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Udalen mapa berria

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du duela gutxi batzar orokorra egin zela Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioan eta batzorde Betearazleak azaldu zuela udal mapa berriaren aurreproiektuan egindako lana; bilera horretan talde handi batek, ez gehiengoak, egin diren gestioekin ados ez dagoela azaldu zuen, prozesuan eman den informazio falta dela eta.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

14.- ESKARIAK ETA GALDERAK

De Potestad jk. hitza hartu du eta esan du arte eszenikoen inguruan argitaratu den Foru Agindua dela eta, proposatu du batzorde bat egitea Garaitzeko Asi Elkartearekin, gaiaz mintzatzeko.

Beste aldetik, proposatu du, banda zabala aprobetxatuz, herri mailan wifi-sarea jartzeko aukera aztertzea, udaletxean antena bat eta kultur etxean beste bat jarriz, gutxi gora behera 70 erabiltzaileentzako, eta horren kostua 1.452 euroko inbertsioa gehi bizilagun bakoitzeko 75 € (estaldurarik ez dutenen kasuan) izango dela. De Potestad jk. egin duen proposamena onartzea erabaki da aho batez.

De Potestad jk. egur loteei buruz galdetu du eta alkateak, Irigaray jk., dio atzo guztiak markatu zirela eta datorren astean egingo dela zozketa, orain arte egin duen eguraldi txarra dela eta ezin izan direlako lan horiek egin.

Azkenik Nekazal Ganbarari dagokionez, posta zerbitzuarekin gertatzen den antzeko zerbait gertatu da, kostuak jaitsi nahi direla, eta, adibidez, postariak Otsagabiatik Auritzerraino banatzen duenez eguerdia arte ez da posta iristen.

Beraiekin bilera egitea erabaki da banaketa beste era batera egin ahal den aztertzeko.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, 21:00etan bilkura bukatu da, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.